



Malkoak lur antzuan. Toti Martínez de Lezea

Itzultzailea: Miren Arratibel

ISBN: 978-84-9109-339-8

Saila: Narratiba,

Orriak: 308

Salneurria: 20 €

Damaso, Extremadurako nekazari bat, gaztetatik umezurtza, nola edo hala aurrera egiteko eginahalean ari da lursail txiki bat laboratuz: La Morena izenekoa, aitak oinordetzan utzia. Lucia gazteaz maitemintzen da, baina, harekiko maitasun itxaropen guztiak ezerezean gelditzen zaizkiolarik, Jacintarekin ezkontzen da, azkenik: alargun bat, bera baino nagusixeagoa, alaba baten ama, zeinarekin izango baititu beste lau seme-alaba, horietako bat 1936ko Gerra Zibil bete-betean jaioa.

Gerra ez zen iritsi beren herriraino, eta Badajoz hiriburuan bizi den noble absentista baten jabetzako lurren administratzaileak kontrolpean du herria. Kazike horrek –Aquilino Matamando du izena, eta Luciaren anaia da, aldi berean–, nahi duena egiten du, nahierara ematen eta kentzen du lana. Damasori gorroto itzela baitio, La Morena kentzen dio, eta familia aurrera ateratzeko mando-aurreko lan egitea beste irtenbiderik ez zaio gelditzen Damasori.

Ideologia politikorik ez, eta batetik bestera ibiliko da gizona, egoeraren mende. Soroan lan egiten du; kontrabandoan aritzen da Portugaleko mugan, La Rayan; eta atxilotu egiten dute, baina ihes egitea lortu, eta mendialdeko erresistentziako errepublikanoekin bat egiten du, harik eta berriro harrapatzen duten arte. Bien bitartean, kostata ari da Jacinta seme-alabak aurrera ateratzen, gabezia ugari, familiaren babesik batere ez eta laguntzaile bakarra senarraren ahaide bat duela: izeba Eusebia.

Handik hogeita hamar urtera, Manu, gerra garaian jaiotako semea, baldintza ezin kaskarragoetan bizi da Bizkaiko meatze herri batean. Bera gaztetxea zela itxi baitzuten meatzea, fabrika batean hasten da lanean. 1966an, zazpi hilabetetik gorako greba bat egiten dute fabrika hartan, frankismo garaiko greba luzeena, salbuespen egoera ezartzearekin amaitua. Greba haren buruzagi nagusiak beste eskualde batzuetara erbesteratzen dituzte, eta, bat-batean, bakar-bakarrik aurkitzen da Manuel, Badajozko eskualde zabal batean, zeinetan ikertu ahal izango baitu, azkenik, hainbeste urte lehenago bere familiari gertatutakoa.

Toti Martínez de Lezearen hitzetan: *“Garai ikaragarri gogor batean gertatutako milaka historietatik bat gehiago besterik ez da honako hau. Eleberri honek ez dihardu gerra, borroka eta izen ospetsuez, jende xume arruntez baizik: halako eta bestelako ideologiak ulertu eta defendatu gabe haien ondorioak jasan beharrean dagoen gehiengoaz, zeinak xede bakartzat baititu senitartekoen ogia –ez boterea edo kontrol politikoa– eta gizaki orori eskubidez dagokion duintasuna”.*

Aurkezpen ekitaldia, 2018ko azaroak 13